

AZTNUGAL ROCK II

BALORAZIOA

Aztnugal Rock 2011ko maiatzean sortu zen Lakuntzan. Gure atxiloketa eman eta gero, lagun talde bat elkartu eta salaketa elkartasunarekin uztartu zuten. Errepresioa eta tortura ozen salatu zituzten. Han hasi zen guztia...

Bost urte geroago eta Aztnugal Kultur Zikloan txertatuta, Aztnugal Rock II burutu genuen herenegun Burlatan. Berriz ere salaketa eta elkartasuna uztartu ziren: torturaren salaketa zuzena egin zen eta apirilean izango dugun epaiketa dela eta, elkartasun itzela jaso genuen.

Segurtasun kontuak zirela eta, aforoa mugatua zen eta sarrera kopuru mugatuarekin takila ireki genuen. Ordu gutxira pozik "sold out" kartela zintzilikatu genuen takilan. Lan ordu asko genituen aurretik baina gustora ekin genion lanari ahal genuen guztia salduta zegoelako.

Kontzertua atzerapen txiki batekin hasi zen arazotxo tekniko bat zela eta. Baina Jotatxo abesti desberdinak jartzen hasi zen eta giroa berotuz joan zen. Sukaldeko plantxak martxan eta taberna topera berehala ikusi genituen. Oholtzara igo ziren taldeek zuten onena eskaini ziguten eta frontoian giro paregabea jarri zuten egiten zuen gauaren hoztasuna ahantz araziz. Lan asko genuen arren, gustora aritu ginen eta oso pozik ikusi genuen jendea, disfrutatzen. Berrehun pertsonatik gorako boluntarioek lan paregabea burutu zuten, haien elkartasuna lanean ere eskainiz. Hasi bezala, Jotatxok amaitu zuen gau bikaina, bere abestiekin pastelari ginda ezarriz. Baina... Kontzertu amaieran, gertaera negatibo bat izan zen eta balorazio honetan aipatu gabe ezin dugu utzi:

Lagun talde ezberdinen arteko hiru liskar ezberdin pairatu behar izan genituen. Gure segurtasun talde boluntarioaren lan paregabeak gehiagora ez joatea lortu bazuen ere, gaueko puntu beltz eta negargarria izan zen. Herri mugimenduak antolatzen dituen jaialdietan joka dabilen jendeak jakin beharko luke kolpe horiek antolatzen den ekimen horri ematen dizkiola zuzen zuzenean, kasu honetan Aztnugal Rock ekimenari. Hiru liskar horietan parte hartu zutenen ardura izan zen kontzertua 15 minutu lehenago amaitzea. Bertan sortu zuten giro zakarrak bultzatu gintuen horretara. Haien ardura izan zen bertan lanean geundenok jasan behar izan genuen kezka, egonezina eta urduritasuna. Haien ardura izan zen kontzertuaren amaiera ehunka pertsonen murriztearen ardura. Aztnugal Rock ekimenaren izenean, pertsona edo lagun talde horiei, egindakoa hausnartu dezatela eskatu nahiko genieke, gutxienez horrelakoak inoiz errepikatu ez ditzaten.

Orokorrean, Aztnugal Rock II salaketa eta elkartasun jai polita izan zela deritzogu. Azken arazo horiek kenduta, ez zen inolako arazorik izan eta jendeak gau polita bizi izan zuela uste dugu, torturaren aurkako garrasia bertan zeuden bozgorailuek lagunduta, Euskal Herriko bazter guztietara zabaldu genuelarik. Latza izan zen!

BIHOTZ BIHOTZEZ ESKERRAK:

Eskerrik asko Aztnugal Rock I eta bertan lan egin eta modu batera edo bestera parte hartu zenuten guztioi. Ez gara zuekin ahazten nahiz eta bost urte pasa diren...

Eskerrik asko Aznugal Rock II posible egin duzuen guztioi:

- Sarrera erosi zenutenei. Kontzertuaz gozatzera bertaratu zineten guztiei. Jaia eta elkartasuna uztartuz, giro paregabea jarri zenutenei.

- Torturaren aurrean berriro ere pauso bat aurrera eman eta oholtza gainean egon zineten MConak, Arkada Social, Kaotiko, Kop, Tximeleta eta Dj Jotaxori. Eta zuekin doazen langile fin horiei. Ohi bezala, goi mailako espektakuloa eskaini zenuten eta izugarri gozatu genuen zuekin. Handiak zarete gero! Zuen ekarpena itzela izan da.

- Klick Sound eta bere langileek dena eman zuten ostiraletik igandera kontzertu hau posible egiteko. Neurtu ezinezko elkartasuna eta lan profesionala.

- Gertu Inprimategia, Samu, Prevención Ezkaba, Enrike Miranda, Mitxel Bikabi, Dya, Sotero eta langileak, Sergio eta langileak, Burlatako Udala eta langileak, Atarrabiako Udala eta langileak, Axular Elkartea, Askatasuna frontoiko langileak, Hatortxu Rock, Naiz, Euskalerria Irratia...

- Modu batera edo bestera kontzertu hau posible egiteko lan neketsua egin zenuten guztioi. Zuek gabe ezinezkoa litzateke jaialdia antolatzea eta aurrera eramatea. Aurretik egindako lanak, egunean bertan txanda guztiak eta ondoren dena biltzen eta garbitzen... harrigarria benetan! Hunkituta gogoratzen dugun laguntza ikaragarria...

Hitz hauek idaztea pentsatu genuenetik bagenekien motz geratuko zirela... Ezinezkoa baita hainbeste lan suposatzen duen kontzertu bat aurrera ateratzeko jaso dugun laguntza, babesak, indarra eta maitasuna zenbatzea edo azaltzea, eta askoz gutxiago, behar bezala eskertzea. Emozioak jota, bihotza uzkuriturik eta begiak malkoz bustita idazten ditugu hitz hauek. Baina indartsu, inoiz baino indartsuago. Zuei guztiei zor dizuegu. Mila esker guztiagatik, bihotzez.

Tortura agerraraziko dugu.

Bere ondorio latzak borrokatu...

Tortura garaituko dugu!